



ZOZKETA: 600 EURO SALMENTA-BALETAN ETA ZINEMARAKO 20 SARRERA BIKOITZ

“DGROS” Groseko Merkatarien eta Zerbitzuen Elkartek, G75217083 zenbakidun IFK duenak, Gros auzoko tokiko komertzioetan erostearen aldeko kanpaina bat egitea erabaki du, ondoren adierazten diren OINARRIAK dituen.

Ekimen hau sustatzen duten 74 komertzioak

AER MODA (COLÓN, 11); **AFEDE** (NUEVA, 3); **AFEDE** (ZABALETA, 3); **ALIMENTACIÓN FABO** (NUEVA, 6); **ALMACENES SAN IGNACIO** (SAN FRANCISCO, 18); **PASTELERÍA ANTOJITOS** (RAMON Y CAJAL, 5); **ARANTXA CELAYA MODA** (GRAN VIA, 31); **BASMODEC PINTURAS** (SECUNDINO ESNAOLA, 19); **BATLLÓ CONCEPT** (IPARRAGIRRE, 18); **CALZADOS MIRACRUZ** (MIRACRUZ, 28); **CALZADOS JULI** (PADRE LARROCA, 1); **CALZADOS MIRURI** (ZABALETA, 9); **CALZADOS NEREA** (NAFARROA BEHERA, 3); **CALZADOS NEXT** (MIRACRUZ, 10); **CCHIKA DONOSTI** (SECUNDINO ESNAOLA, 41); **CESTONA CONFECCIÓN** (SECUNDINO ESNAOLA, 9); **CARNICERÍA CHAMORRO** (CARQUIZANO, 6); **CARNICERÍA CHAMORRO** (MERCADO DE GROS, PUESTO 2); **COCINA GROS** (SECUNDINO ESNAOLA, 14); **CUCHILLERÍA NAVARRO** (BERMINGHAM, 10); **DECORACIONES GROS** (SAN FRANCISCO, 19); **DEPORTES APALATEGUI** (ZABALETA, 3); **DEPORTES APALATEGUI** (ZURRIOLA, 26); **EKODENDA ULIA** (DOCTOR CLAUDIO DELGADO, 1); **EMILY'S NOOK** (RAMON Y CAJAL, 5); **ESKUBITWO ABALORIOS** (GRAN VIA, 22); **EUSKAL IRRINTZI OPARIA** (ZURRIOLA, 1); **EXCLUSIVAS MIKEL** (CARQUIZANO, 10); **FARMAGROS** (SEGUNDO IZPIZUA, 20); **FARMACIA BLASCO** (CARQUIZANO, 12); **FOTOCOPIAS IPARRAGIRRE** (IPARRAGIRRE, 15); **GREEN MEAT** (TXOFRE, 2); **HAWAII SURF ZURRIOLA** (20); **HIDROCEAMICAS** (SECUNDINO ESNAOLA, 36); **HITZ** (PEÑA Y GOÑI, 1); **INDIE BASQUE SURFING** (ZURRIOLA, 1); **IPARRAGIRRE OFIMAT** (IPARRAGIRRE, 15); **ITZIAR ABAD ILEAPANDEGIA** (SEGUNDO IZPIZUA, 26); **IZARBIDE** (GRAN VIA, 30); **KBERBI NEW** (ZURRIOLA, 1); **LA BARBERIE** (GRAN VIA, 22); **LA DALIA LENCERÍA** (MIRACRUZ, 28); **LA ESMALTERIA** (RAMON Y CAJAL, 4); **LA FLORIS FLORISTERIA** (ZABALETA, 17); **LA OCA** (ZURRIOLA, 16); **LA PERLA DE GROS** (PEÑA Y GOÑI, 15); **METRÓPOLIS PLATZ** (USANDIZAGA, 27); **LEIZE MODA** (SECUNDINO ESNAOLA, 13); **LIBRERÍA ARITZ** (SEGUNDO IZPIZUA, 19); **LOTUS GROS** (SECUNDINO ESNAOLA, 7); **LUNA NUEVA** (GRAN VIA, 12); **MANIPEL FOTOGRAFÍA** (AGIRRE MIRAMON, 9); **MARIAN H** (MIGUEL IMAZ, 7); **MEIRY'S INTIMA** (SEGUNDO IZPIZUA, 21); **LENCERÍA ARRAZUBI** (GRAN VIA, 19); **MH WORLD** (RONDA, 5); **MOLUPITA** (GRAN VIA, 22); **MUGUET** (ZABALETA, 14); **MUNDUKO** (SAN FRANCISCO, 29); **NIKA BIO** (SAN FRANCISCO, 51); **OH LALA** (IPARRAGIRRE, 8); **ÓPTICA HAROTZ** (SECUNDINO ESNAOLA, 22); **OTEIZA DECORACIÓN TEXTIL** (JOSE ARANA, 16); **OVALO ENMARCACIONES** (ZABALETA, 7); **PASTELERÍA OPILLA** (GRAN VIA, 1); **PASTELERÍA OTAEGUI** (SECUNDINO ESNAOLA, 2); **PAULA'S** (MIGUEL IMAZ, 10); **RELOJERÍA JOYERÍA MIKEL** (CARQUIZANO, 9); **RORIOL ZAPATADENDA** (ZABALETA, 15); **SASTRERÍA ALDABALDETREKU** (SAN FRANCISCO, 5); **SERVI-HOTEL** (NUEVA, 5); **TXANTXO REGALOS** (GRAN VIA, 19); **VIAJES COLON 14** (COLON, 14); **WHITE TARA** (IPARRAGIRRE, 15).

Lehenengoa: Kanpainaren xedea da honako opari hauek zozkatzea:

- **600 euroko zenbatekodun 18 salmentsa-bale**, honela banatuta: 5ona euroko 8 bale, eta zona euroko 10 bale. Bale horiek “DGROS” Groseko Merkatarien eta Zerbitzuen Elkarteko elkartekide izanik, kanpaina parte hartzea eskatu duten komertzioetan kontsumitu beharko dira.
- **Zinemarako 20 sarrera bikoitz**, Trueba zinema-aretoetan (Secundino Esnaola kalea 2, 20001 Donostia, Gipuzkoa) edozein egun eta saiotan erabiltzekoak.



Bigarrena: Kanpainari atxikitako komertzioetan erosketak egiten dituen **adin nagusiko pertsona orok** har dezake parte zozketan. Merkatarri bakoitzak erabakiko du establezimenduak zigilatutako eta zenbakitutako txartel bat edo hainbat txartel eman kanpainak irauten duen bitartean erosketak egiten dituzten bezeroei.

Hiugarrena: Zozketan parte hartzeko, paper bat bete behar du bezeroak, bere datu pertsonalekin (izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono mugikorraren zenbakia) eta erosketak egin duen komertzioaren izena. Komertzioan horretarako egokitutako kutxan sartu beharko da paper hori.

Laugarrena: Epea: **2019ko maiatzaren 7tik 25ra iraungo du kanpainak.**

Bosgarrena: GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN bulegoan egingo da zozketa **2019ko maiatzaren 29an**, 14:00ak eta 16:00ak bitartean (baldin eta, antolakuntzarekin lotutako arrazoiengatik, zozketaren data aldatu beharrik sortzen ez bada; kasu horretan, GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN webgunean <http://www.fmg.es/nuestras-asociaciones/gros-asociacion> argitaratuko da). Publikoa izango da zozketa; hausaz aterako dira opari-baletarako eta zinemarako sarrera bikoitzetarako txartelak, eta emaitzaren akta jasoko du Idazkariak edo eginkizun horretarako izendatzen den Zuzendaritza Batzordeko kideak. Opari-baleetarako eta zinemarako sarrera bikoitzetarako hamarna ordezkio ere aukeratuko dira zozketan.

Publikoa izango da zozketa; hausaz aterako dira opari-baletarako eta zinemarako sarrera bikoitzetarako txartelak, eta emaitzaren akta jasoko du Idazkariak edo eginkizun horretarako izendatzen den Zuzendaritza Batzordeko kideak. Opari-baleetarako eta zinemarako sarrera bikoitzetarako hamarna ordezkio ere aukeratuko dira zozketan.

Seigarrena: <http://www.fmg.es/nuestras-asociaciones/gros-asociacion> GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN webgunean argitaratuko da irabazleen zerrenda. Ondore horietarako, saritutako pertsonak beren izen-abizenak irabazleen zerrendan argitaratzeko baimena ematen dute.

Zazpigarrena: Behin zozketa egiten denean, telefono bitartez jakinaraziko zaie irabazleei emaitza, beren erosketak egin duten komertziora joan daitezen opari-balea edo zinemarako sarrera bikoitza jasotzera.

Elkartea irabazleetakoren batekin harremanetan jarri ezin bada, edo irabazlea ez bada harremanetan jartzen **“DGROS”** Groseko Merkatarrien eta Zerbitzuen Elkarteko harremanetarako pertsonarekin (EPEMUGA: 2019ko maiatzaren 29a, 18:00ak), erreserba-zerrendako hurrengo irabazleari egingo zaio deialdia eta, horrela, behin eta berriro. Irabazlea bera ez bada joaten pertsonalki opari-balea edo zinemarako sarrerak jasotzera, bere izenean joaten den pertsonak irabazlearen baimena eraman beharko du sinatuta bere izenean, bai eta baimena ematen duen pertsonaren NAN agiriaren kopia ere. Saria jasotzeko, sariarekin argazkia ateratzeko baimena eman beharko du irabazleak, bere irudi-eskubideak emanez eta argazkia komunikabideetan eta GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen dituen sare sozialetan argitaratzeko baimena emanez (GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK kudeatzen ditu **“DGROS”** Groseko Merkatarrien eta Zerbitzuen Elkartearen sare sozialak ere).

Zortzigarrena: Trukea egiteko baldintzak:

- **Salmenta-baleak** erosketak bidez bakarrik trukea daitezke kanpainan parte hartzen duten **“DGROS”** Groseko Merkatarrien eta Zerbitzuen Elkarteko elkartekide diren establezimenduetan; emango zaie komertzio horien zerrenda. Erosketaren zenbatekoa balearena baino handiagoa baldin bada, irabazleak aldea ordaindu beharko du. Sariak ezin dira trukatu eskudirutan. Balearen zenbateko osoa erosketak berean gastatu beharko da. **“DGROS”** Groseko Merkatarrien eta



Zerbitzuen Elkarateak ez du bere gain hartzen erosketen emaitzaren erantzukizuna; bezeroaren eta establezimenduaren arteko harremanari bakarrik eragingo dio horrek.

- **Zinemarako sarrera bikoitzek** Trueba zinema-aretoetan (Secundino kalea 2, 20001 Donostia, Gipuzkoa) edozein egun eta saiotan erabiltzeko balio dute. Zinemako lehiatiletan egingo beharko da sarreraren trukea eta trukea egiten den egun berean kontsumituko da sarrera.

Maiatzaren 31ko 18:00etatik aurrera jaso ahal izango dira opari-baleak eta zinemarako sarrera bikoitzak, telefonoz komunikatutako establezimenduetan, irabazleek beren erosketak egin dituzten establezimenduetan, hain zuzen ere. Zenbakituta eta GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK zigilatuta egongo dira opari-bale eta zinemarako sarrera bikoitz guztiak.

Bederatzigarrena: Iraungipena:

- Ekainaren 15era arteko epea (egun hori barne) egongo da atxikitako edozein komertziotan **salmenta-baleak** kontsumitzeko.
- Ekainaren 30era artekoa (egun hori barne) izango da, berriz, zinemarako sarrera bikoitzak kontsumitzeko epea.

Hamargarrena: Kanpainen parte hartzen duten merkatarien betebeharrak:

- Kanpainen parte hartu nahi duten komertzioek telefonoz (943 425 557, Luzapena: 217) edo posta elektronikoz (sari.delbarrio@fmg.es) baieztatu beharko dute parte hartu nahi dutela, apirilaren 23ko –asteazkena– 12:00ak baino lehen.
- **Kanpainen parte hartu nahi duten komertzioek 20 euros ordaindu behar dituzte, saltoki bakoitzeko.** GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK, Maiatzaren 22 an kargu bat egingo kontu korrentean da eta faktura atxikituko da.
- Kanpaina egiteko ondoreetarako, **“DGROS”** Groseko Merkatarien eta Zerbitzuen Elkarateak ondoren adierazten den materiala emango die parte hartuko duten elkartekideei, beren establezimenduetan jar dezaten:

- **Zozketan parte hartzeko oinarriak**
- **Zozketa Promozio-kartela A3** tamainan (erakusleihoan edo atean jartzeko).
- **Promoziorako liburuxkak** (bezeroek eskuragarri izan beharko dituzte).
- **Zozketan parte hartzeko 250 txartel; establezimenduak bere zigilua jarri beharko die kontsumitzaileek bete aurretik** (ez da onartuko establezimenduaren zigilurik ez duen txartel irabazlerik. Saltoki zigilua ez duten satokiek bere NAN zenbakia eta sinadura jarri beharko dute).
- Kontsumitzaileek betetako papertxoak botatzeko **kutxa**.
- **Kutxan jartzeko kartela**.
- **30 minutuko aparkalekua doan Katalunia Plazako Parkingean Promozio Kartela A5** (erakusleihoan edo atean jartzeko **Zozketa Promozio-kartela A3** –ren ondoan).
- **30 minutuko aparkalekua doan Katalunia Plazako Parkingean Ticketak**. Ticket hauek, kotzez datozten bezeroen artean banantzeko dira.
- **Gutun-azala** betetako papertxoak jasotzeko.

2019ko maiatzaren 6an emango zaio material hori guztia establezimendu bakoitzari, goizeko 10:00 etatik aurrera.



- Kanpainen parte hartzen duten komertzioak konprometitzen dira salmentak eginez gero bakarrik ematera bezeroei zozketan parte hartzeko txartelak; debekatuta dago papertxoak saltzea. **DEBEKATUTA DAGO FOTOKOPIAK EDO FALTSIFIKAZIOAK EGITEA**

- 2019ko maiatzaren 25a (egun hori barne) izango da zozketaren azken eguna. Merkatarari bakoitzak egoera onean zaindu beharko du kutxa, urratu gabe, aurrerago beste zozketa batzuetan erabiltzeko.

- Maiatzaren 27ean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, bilduko dituzte betetako papertxoak GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOKO langileek. Komertzioaren izena daraman gutun-azal batean gordeta egon behar dira papertxo guztiak. **Maiatzaren 27erako entregatzeko prest ez daude papertxoak ez dira bilduko eta, ondorioz, ezin izango dute zozketan parte hartu.**

- Banku-transferentzia bidez ordainduko dira egindako erosketengatikoko opari-baleak, GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAREN kontutik. Baleak kobratzeko aurkezteko epemuga: 2019ko **EKAINAREN 24a**. Ez da onartuko beranduago aurkeztutako balerik.

Komertzioek bezeroek entregatutako opari-balearen kopurua kobratu ahal dezaten, beharrezkoa izango da posta elektronikoz (sarai.delbarrio@fmg.es) edo telefonoz (943 425 557, Luzapena:217) baieztatu beharko dute 2019ko EKAINAREN 24a baino lehen eta entregatu beharko dute establezimenduan trukaturako opari-balea GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAN kobratu ahla izateko.

Datuen babeserako Legea

GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOAK, tratamenduaren arduraduna den aldetik, zure datuak biltzearen helburuak honakoak direla jakinarazten dizu: harremanetarako datuak kudeatzea, komunikazio eta informazio orokorrerako, publizitaterako eta merkataritza-prospektzioarako.

Interesdunaren baimena da tratamendurako oinarri juridikoa. Zure datuak ez zaizkie hirugarrenei emango, horretarako legezko obligaziorik egon ezean. Edozeinek du eskubidea bere datu pertsonalak eskuratzeko zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurkaratzeko edo eramateko; horretarako, gure bulegoen helbidera idatz dezake, edo posta elektronikoko bat bidali diezaguke federacion@fmg.es helbide elektronikora, eta zein eskubide erabili nahi duen adierazi. Gure webgunean (www.fmg.es) eskura dezakezu informazio gehigarria.